


## KANALAK

---

Gure proiektua bezeroengana iritsi dadin, kanalen konbinazio hau erabaki dugu:

Internet bidezko nahiz ohiko denda propioa. Gaur egun oso ohikoa bihurtu da erosketak online egitea, baina produktu mota hau begi hutsez, pantaila baten oztupoa izan gabe ikustekoa kontsideratzen dugunez, ohiko denda beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Horrela, bezeroak guri buruzko informazioa eta gure laguntza jasotzeko aukera izango zuen bai pertsonalki, eta bai birtualki, horiek biak bezeroekin dugun komunikazio-kanala izanik.

Bi dendetan izango zuten erosketa egiteko aukera, baina internetez egiterakoan garestiago irtengo zitzaien bidalketa gastuak direla eta (denda fisikoan eginiko erosketak garraiatzeko aukera ere ematen da, gastu horiek erosleak ordaintzen baditu). Bidalketa hori betetzeko enpresak furgoneta bat erosi beharko du, produktua nahiz hura muntatzeko beharrezkoak diren tresnak etab. garraiatzeko haina handia izango dena.



Behin pertsonak eroslearen etxean daudelarik, muntaketa egin beharko da. Hori prezioaren barne sartzen da, gure teknikarien lana dela pentsatzen dugulako.